

<b>VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN PARTE-HARTZE PLANA, 2016-2019 EKINTZA PLANA ONESTEKO</b>
--

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak lehentasunezko ildotzat du bere kultur politikan herritarren partaidetza, gakoa baita proiektuak lurraldearekin eta herritarrekin bat eginik garatzeko; horrenbestez, beharrezkoa da partaidetza prozesuak abiaraztea, XXI. mendeko herritarren eta kultur eta arte sektoreen premia eta eskaeren araberakoak.

Partaidetza prozesu honen xedea kontsulta eta orientazioa dira, egiten den kultur plana anitza eta partaidetzan oinarritua izan dadin sustatzeko.

**APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA:** 11/2012 FORU LEGEA, EKAINAREN 21EKOA, GARDENTASUNARI ETA GOBERNU IREKIARI BURUZKOA

## **1.- HELBURUAK**

- Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko 11/2012 Foru Legea betetzea.
- Herritarrei ezagutaraztea Nafarroako kultur plangintza publikoa.
- Kultur diskurtsoaren eraikuntzan herritarren inplikazioa lortzea.
- Partaidetza handia izanen duen eta esparru guztietako aniztasuna kontuan hartuko duen Kultur Politika sustatzea.
- Komunitatearen garapena gardentasunaren eta partaidetzaren bidez gauzatzea, herritarren beharretara hobeto egokitzeko.
- Zerbitzu publikoen kalitatea hobetzea eta Nafarroako Gobernuaren plangintza doitzea entitate parte-hartzaileek egiten dituzten interes publikoko proposamenen bidez.

## **2.- EKINTZAK**

Partaidetza prozesua honako ekintza hauen bidez gauzatuko da:

- Informazio ekintzak:
  - Partaidetza plana aurkezteko jardunaldia: apirilaren 19an, Nafarroako Museoan.
  - Etengabe informazioa izateko aukera Gobernu Irekiaren atarian.
  - Partaidetza saioak izan aurretik informazioa igorriko da.
- Aurrez aurreko partaidetza izanen da. Horretarako, zenbait bilera egingen dira:
  - Sektorialak
  - Lurraldekoak
  - Gogoeta egitekoak
- Aurrez aurreko saioetakoez bestelako ekarpenak biltzea:

- Iradokizunen/ekarpenen aurkezpena erraztea Gobernu Irekia, helbide elektroniko berariazkoa eta online foroa baliatuz (azken hori irailetik aurrera egonen da erabilgarri, gogoeta fasean).
- Itzulera:
  - Itzulera-saio bat antolatzea, onartzen diren eta alde batera uzten diren proposamen, alegazio eta iradokizunen gainean informatzeko (baztertutakoei dagokienez, ukatzeko arrazoiak emanen dira).
  - Azken txostena egitea eta partaidetza prozesuaren bilakaera aztertzea.
  - Erabakiak hartzea.
  - Plana onestea.

### **3. VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEA-KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAK HARTZEN DITUEN KONPROMISOAK**

- Parte hartzeko eskubideaz eta eskubide hori gauzatzeko moduez informatzea.
- Parte-hartze prozesu anitza bermatzea.
- Planaren informazioa eskuragarri izatea (saiotarako deiak eta izen-emateak, aktak, azken ebaluazioa...) Gobernu Irekiaren atarian.

<https://gobiernoabierto.navarra.es/es/gobernanza/difusion/agenda-de-reuniones/jornada-participacion-ciudadana-gestion-cultural>

- Diseinatzen den informazioa kalitatezkoa eta ulergarria izatea eta herritar guztiek eskura izatea.
- Parte-hartze prozesuan izan daitezkeen informazio eskariei erantzutea.
- Planean sartzeko aurkeztzen diren proposamen guztiak jasotzea eta aztertzea.
- Proposamenen gaineko txostena eta azterketa egitea. Prozesuan egindako proposamen guztiak aztertzea.
- Alegazioen bat aurkeztu duen erakunde edo pertsona orori Administrazioak alegazio horren gainean duen posizionamendua zein den adieraztea.

### **4.- ESKU HARTZEN DUTEN AGENTEAK\***

- Sektore publikoa (eskualdeko eta tokiko Administrazioa).
- Sektore pribatua (kultur eta sormen industriak).
- Hirugarren sektorea (elkarteak eta kultur fundazioak).
- Nafarroako Kultura Kontseilua.

**\*I. eranskina:** parte-hartze prozesuan modu aktiboan jarduteko gonbita jaso duten erakunde eta adituak. Zerrenda irekia da eta hala eskatzen duten bestelako erakundeak eta pertsonak sartzen ahalko dira.

### **5.- SAIOAK**

- Deialdiak irekiak izanen dira.
- Saio sektorialetan eta gogoeta egiteko saioetan parte hartu nahi duten entitateek eta pertsonak aldeztu aurretik izena eman beharko dute. Plana hedatzeko informazioa eta

dokumentu osoan sartzeko lotura edo haren erreferentzia igorriko dira gonbidapenarekin batera.

- Interesdunek saio batean, gehiagotan edo guztietan eman dezakete izena.
- Bilerak bakoitzeko akta idatziko da. Interesdunei igorriko zaie eta Gobernu Irekiaren atarian jarriko da.

#### **5.1. Saio sektorialak:** maiatzaren 15a eta ekainaren 15a bitartean egingen dira:

- Liburutegiak
  - Artxiboak
  - Ondarea
  - Kultur ekintza
  - Museoak
- Bilerak 2 ordukoak izanen dira, gutxi gorabehera.
  - Egunak eta orduak denbora gutxi barru zehaztuko dira eta alde zuzenetik izena eman duten entitate eta pertsonen jakinaraziko zaizkie.
  - Kokapena: saio guztiak NAPIko aretoetan egingen dira (Navarrería kalea, 39), Artxiboena izan ezik, Nafarroako Artxibo Nagusian egingen baita.

#### **5.2. Eskualdeko saioak:** irailaren 12a eta 30a bitartean egingen dira, hemen:

- Tuteran
  - Tafallan
  - Lizarran
  - Iruñean
  - Donezteben
  - Irurtzunen
  - Zangozan
- Bilerak 2 ordukoak izanen dira, gutxi gorabehera.
  - Saioak kontsultarako eta informazioa emateko dira.
  - Egunak eta lekuak geroago zehaztuko dira.

#### **5.3. Gogoeta egiteko saioak:**

Urriaren 3a eta 14a bitartean egingen dira eta 3 orduko iraupena izanen dute.

#### **Proposatutako gaiak:**

- **Araudia**
  - Lege sektorialak: eguneratzea eta haien arau garapenak.
  - Mezenasgoaren legea berraztertzea.
  - Kulturarako eskubidearen legea.
  
- **Plangintza eta kudeaketa**

- Zeharkakotasuna: Kultura Zuzendaritza Nagusiaren eta Gobernuko beste departamentu batzuen arteko harremana.
- Gobernuaren eta udalen eta beste eragile batzuen arteko koordinazioa.
- **Irisgarritasuna eta ikusgarritasuna**
  - Gizartearen irisgarritasuna kultur baliabideetara, herritarrek publiko gisa parte hartzea.
  - Kultur eskaintzaren komunikazioa, ikusgarritasuna eta balioespena.
  - Sektore sortzailearen sormena, berrikuntza eta ikusgarritasuna balioestea.

Bilerak honela kudeatuko dira:

1. Aldez aurretik izena eman duten administrazio ukituetako entitateei, adituei eta interesdunei eginen zaie deia, aurreko 4. puntuan aipatutakoei. Era berean, herritarrek oro har egindako parte-hartze eskaerak onartzen ahalko dira, aretoaren edukiera eta bileren eraginkortasuna kontuan hartuta.
2. Nafarroako Gobernuko ordezkari bat izanen da bilerako buru.
3. Bilera honela burutuko da:
  - Irekiera.
  - Gobernuak proposatutako teknikariek eztabaidatuko den gaia xede duten planeko atalak aurkeztuko dituzte.
  - Bertaratuek proposamenak aurkeztuko dituzte, halakorik balego. Ahal den neurrian, proposamen horiek aldez aurretik igorriko zaizkio bilerako idazkariari, izena eman dutenek aurretiaz izan ahal ditzaten.
  - Bertaratuek aurreko hizlariari egindako galderak eta azalpenak.
  - Eztabaida taldeka.
  - Taldeen proposamenak eta ondorioak (baleude) aurkeztea.
4. Idazkari bat eta moderatzaile bat edo bi izanen dira, bertaratuko direnen kopurua kontuan hartuta aurreikusi diren eztabaida taldeen arabera.

Izena eman duten entitate eta/edo pertsonak eztabaidarako proposamenen bat bidali nahi izanez gero, eskaerak aldez aurretik igorri beharko dituzte.

## 6.- ITZULERA-FASEA

- Parte-hartze publikoaren prozesuan lortutako emaitza guztiak eta prozesu horretan sortutako dokumentazioa bilduz, tarteko txosten bat prestatuko da. Dokumentu hori Gobernu Irekiaren atarian egonen da eskura, handik jaitsi ondoren kontsultatu ahal izateko. Dokumentu horretan, gutxienez, informazio hau bilduko da:
  - Egindako jarduerak
  - Parte-hartzaileen zerrenda
  - Egindako bileretan bildutako proposamenak
  - Alegazioak eta hartu diren bestelako proposamenak
  - Onartutako eta alde batera utzitako proposamenak
- Gero, azaroan, informazioaren gaineko itzulera-saioa antolatuko da, batetik, parte-hartzaileei haien ekarpenak zer-nola erabili eta kudeatu diren adierazteko, eta, bestetik, onartutako eta alde batera utzitako proposamenen gaineko informazioa modu arrazoituan

emateko. Parte-hartze plana ebaluatzeko galdera-sorta laburra bete daiteke bilera horretan. Aipatutako bilera horretan parte hartu ez baina jardueretako batean parte hartu zutenei igortzen ahal zaie galdera-sorta hau.

- Parte-hartze proposamen bat aurkeztea, planaren jarraipen eta burutze faserako.
- Parte-hartzearen amaierako memoria plana onartzeko espedienteari gehituko zaio. Memoria horretan sartuko dira tarteko txostena eta itzulera-saioko informazioa eta, orobat, planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko faserako parte-hartze plana.

## 7. INFORMAZIO ETA PARTE-HARTZE PROZESUAREN KUDEAKETA

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak informazio eta parte-hartze publikorako prozesua kudeatuko du eta Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusiko Herritarren Arretarako eta Partaidetzarako Zerbitzuaren eta Lehendakartzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiko Gobernu Irekiaren Zerbitzuaren laguntza eta lankidetzat izanen ditu.

Kanpoko enpresa baten laguntza izanen da hurrengo jarduera hauek egiteko:

- Informazio, kontsulta eta gogoeta saioetarako deia eta antolaketa egiteko.
- Txosten bat prestatzeko parte-hartze prozesuan zehar izan daitezkeen proposamen eta alegazioekin, aurrez aurre, idatziz zein online eginak izan.
- Amaierako itzulera-jardunaldirako beharrezkoa den dokumentazioa prestatzeko, parte-hartze prozesuan zehar parte-hartzaileek egindako proposamenen gainean hartutako erabakiekin. Jardunaldi hori dinamizatzeko eta moderatzeko.
- Parte-hartze prozesuaren behin-behineko txostena eta amaierakoa egiteko.
- Parte-hartze prozesuaren ebaluazioa egiteko.
- Beste lan osagarri batzuk.

2016-2019 Ekintza Plana prestatzeko prozesu osoaren parte-hartze prozesuaren eta gardentasunaren gaineko informazioa Gobernu Irekiaren Atarian eta Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuaren webgunean egonen da.

Gobernu Irekiaren Atariaren bidez bideratuko da onlineko parte-hartze prozesua.

4. ataleko erakunde eta adituei informazioa posta elektronikoz igorriko zaie. Prozesuan parte hartuko dutenekin eta interesdunekin harremanetan jartzeko bi bide izanen dira: batetik, **participacioncultura@navarra.es** helbide elektronikoa, eta, bestetik, **615 144 471** telefonoa. Batean zein bestean egin daitezke kontsultak, ekarpenak eta abar.

Planaren Jarraipen Batzordeak parte-hartzeko prozesuko jarduerak koordinatu eta gainbegiratu ditu. Batzorde horretako kideak, hauek izanen dira:

- Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia, Baliabideen eta Garapen Estrategikoaren Atalaren bidez.
- Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako Zuzendaritza Nagusia, Herritarren Partaidetzarako Atalaren bidez.
- Lehendakartzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusia, Gobernu Irekiaren Zerbitzuaren bidez.

- Kontratututako kanpoko laguntza: EIN

## 8.- PARTE-HARTZE PROZESUA GOBERNU IREKIAREN ATARIAN

Prozesuaren eta sortuz joanen diren gainerako dokumentu guztien gaineko informazioa aipatutako atarian egonen da:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/es/gobernanza/difusion/agenda-de-reuniones/jornada-participacion-ciudadana-gestion-cultural>

Gainera, horren bitartez interesdunek parte har dezakete iradokizunak, proposamenak eta/edo alegazioak aurkeztuz.

Gogoeta egiteko fasean online foro bat gaituko da ekarpenak eta/edo iradokizunak egiteko (irailtik aurrera egonen da erabilgarri).

### JENDAURREKO FASEA

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko 11/2012 Foru Legeko 35. artikulua araber, Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak jendaurreko epea irekiko du, hilabetez, gutxienez, hala nahi duten erakundeek eta pertsonak beren proposamenak eta/edo alegazioak egin ditzaten. Data zehatzak bide instituzionalen bidez iragarriko dira.

## 9.- AURREIKUSITAKO KOMUNIKAZIO EKINTZAK

Nafarroako Gobernuaren web orriaren, sare sozialen eta hedabideen bidez emanen da planaren garapenari buruzko informazioa.

## 10.- KRONOGRAMAREN LABURPENA

	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA	URRIA	AZAROA
BILERA SEKTORIALAK							
LURRALDEKO BILERAK							
GOGOETA EGITEKO SAIOAK							
GOBERNU IREKIA							
ONLINE FOROA, GOGOETA FASEAN PARTE HARTZEKO							
ITZULERA-SAIOA							

## 1. ERANSKINA

ZERBITZUA	ENTITATEA	AGENTE MOTA
Nafarroako Artxibo Nagusia	Nafarroako Parlamentuko Artxiboa	Sektore publikoa
Nafarroako Artxibo Nagusia	Iruñeko Udal Artxiboa	Sektore publikoa
Nafarroako Artxibo Nagusia	Tuterako Udal Artxiboa	Sektore publikoa
Nafarroako Artxibo Nagusia	Nafarroako Unibertsitate Publikoko Artxiboa	Ikasketa sektorea
Nafarroako Artxibo Nagusia	NUPeko Geografia eta Historia Departamentua	Ikasketa sektorea
Nafarroako Artxibo Nagusia	Iruñeko Katedraleko Artxiboa	
Nafarroako Artxibo Nagusia	Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa	
Nafarroako Artxibo Nagusia	Nafarroako Unibertsitateko Artxiboa	Ikasketa sektorea
Nafarroako Artxibo Nagusia	Nafarroako Unibertsitateko Historia Departamentua	Ikasketa sektorea
Nafarroako Artxibo Nagusia	Nafarroako Azterlan Historikoen Elkarte	Hirugarren sektorea
Nafarroako Artxibo Nagusia	Eusko Ikaskuntza	Hirugarren sektorea
Liburutegiak	Sahats	Sektore pribatua
Liburutegiak	Ediciones Universidad de Navarra	Sektore pribatua
Liburutegiak	Liber Ediciones SA	Sektore pribatua
Liburutegiak	Aranzadi argitaletxea SA	Sektore pribatua
Liburutegiak	Mintzoa argitaletxea SL	Sektore pribatua
Liburutegiak	Pamiela argitaletxea SL	Sektore pribatua
Liburutegiak	Morata argitaletxea SL	Sektore pribatua
Liburutegiak	Txalaparta argitaletxea SL	Sektore pribatua
Liburutegiak	Errementari, SL	Sektore pribatua
Liburutegiak	T6 Ediciones SL	Sektore pribatua
Liburutegiak	Ulzama Digital SL	Sektore pribatua
Liburutegiak	Egn Taller De Comunicación Saioa SL	Sektore pribatua
Liburutegiak	Analecta Ediciones Y Libros SL	Sektore pribatua
Liburutegiak	Laetoli argitaletxea SL	Sektore pribatua
Liburutegiak	Evidencia Medica argitaletxea SL	Sektore pribatua
Liburutegiak	Labrit Multimedia SL	Sektore pribatua
Liburutegiak	Villa Mcluhan Comunicacion SL	Sektore pribatua
Liburutegiak	Fecit argitaletxea	Sektore pribatua
Liburutegiak	Eguzki Bideoak	Sektore pribatua
Liburutegiak	Cenlit argitaletxea	Sektore pribatua
Liburutegiak	Jainko Hitzaren Kongregazioa	Sektore pribatua
Kultur ekintza	Agoizko San Migel Abesbatza	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Nafarroako Argazki eta Zinema Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Lizarrako Club Taurino	Hirugarren sektorea

Kultur ekintza	"Los amigos del arte" Musika Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Iruñeko Ganbera Abesbatza	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Elizondoko Abesbatza	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Bilaketa Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	La Pamplonesa Musika Banda Kultur Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Alaiz Kolektiboa	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Ipar Doñua Abesbatza	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Ortzadar Euskal Folklore Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Jeronimo Ustariz Gizarte Historiaren Nafarroako Institutua	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Nafar Ateneoa	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	"El colectivo" Nafarroako Antzerki Eskola	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Donejakue Bidearen Lagunak Elkarte Nafarroan	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Nafarroako Abesbatzen Federazioa	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Ardanbera Kultur Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Nafarroako Arte Eszenikoetako Profesionalen Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Operaren Lagunen Gayarre Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Nafarroako Bertsozale Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Nafarroako Ardoaren Kofradia	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Zangotzako Ikastolako Ikasleen Gurasoen Elkarte	Ikasketa sektorea
Kultur ekintza	Barañaingo Abesbatza	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Alde Zaharreko Bizilagunen Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Sinfonietta Academica Gazteen Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Oibarko txaranga	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Nafarroako Euskal Dantzarien Biltzarra Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	La Trova Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Arangurengo Abesbatza	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	El Tajador Gazte Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	"As De T" Antzerki eta Kultur Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Doneztebeko Mendi Abesbatza	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Aizaga ganbera koruko ahots-musika elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Fernando Remacha Abesbatza	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Atena fundazioa	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Oreka Nafarroako Zirko Eskola	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Nafarroako Museoaren Adiskideen Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	La Ortiga TDS Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Mataladanza Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Horthy Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Nafarroako Ganbera Opera Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Yarleku Gazte Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Ars Incognita fundazioa	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Gospel Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Ipes Elkarte Gizarte Ikerketarako Talde Eragilea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Rock Musikako Minnuendo Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Ojalá Kantautoreen Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Amigos de Cascante Kultur Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Bitartean Elkarte: artea eta hezkuntza	Hirugarren sektorea



Kultur ekintza	Haizea Dantza Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	"La Caracola" Kultur Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Musikaren eta Arte Eszenikoen Nafarroako Foroa	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	"Cine para todos" Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Solitaintencione Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Berriozar Films Kultural Lantzeluze Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Belar Gorria Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	María Forcada fundazioa	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Nafarroako Hispaniar-errusiar Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Katxupin Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Todos Somos Unas Marionetas	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Kon Moción Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Tuterako Ganberako Abesbatza eta Orkestra Kultur Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Auto Sakramentalak Dinamizatzeko Iruñeko Elkartea (Adaspa)	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Trapezistaren Zorabioa Kultur Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Diego Gomez Musika Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Hures Elkartea, artea sortu eta hedatzeko	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Tiza Elkartea, komikiak sustatzeko	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Ukiezinak Defendatzeko Intangia Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Berrotzako Abesbatza	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Adasha Dantza Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	"Navarra Hip Hop Destino Urbano" Gazte Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Tuterako Katedraleko Lagunen Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Garaikideak Musika Garaikideko Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Interactua arte aplikatuak	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Aedos Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	"Grupo Musical Cuarto Oscuro" Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Euskal Artzainak Ameriketara Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Nafarroako Amateur Antzerkiaren federazioa	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Endanza Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Illargium Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Inkieta Arte eta Kultur Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Nueva Babel Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Verdelimonar Elkartea. Antzerkia	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	E 7.2 Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Escenario Pop	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Nafarroako Jotaren Adiskideen Lizarrako Elkartea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Katedraleko Kabildoa	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Solesmesko beneditarren kongregazioa	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Nafarroako Unibertsitatea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	San Jose Abesbatza	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Lizarrerriko Ikerketa Gunea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Azkoiengo Udal Musika Eskolako Abesbatza	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Attegi Abesbatza	Hirugarren sektorea

Kultur ekintza	Nafarroako Ganbera Abesbatza	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Gaiarre antzokia	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Zentral	Sektore pribatua
Kultur ekintza	Iruñeko Orfeoia	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Nafarroako ijitoen elkarten federazioa	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Atikus antzerkia	Sektore pribatua
Kultur ekintza	Acrónica Producciones SL	Sektore pribatua
Kultur ekintza	Solita Intencione	Sektore pribatua
Kultur ekintza	Trokolo antzerkia	Sektore pribatua
Kultur ekintza	Producciones Maestras	Sektore pribatua
Kultur ekintza	Análisis De Los Cuerpos En Movimiento SL (Fueradeleje)	Sektore pribatua
Kultur ekintza	Quiero Teatro	Sektore pribatua
Kultur ekintza	Nafarroako artisten kooperatiba	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Cronopia Films SL	Sektore pribatua
Kultur ekintza	Claves Producciones Culturales	Sektore pribatua
Kultur ekintza	Global Servicios Culturales SL	Sektore pribatua
Kultur ekintza	Gradual Event SL	Sektore pribatua
Kultur ekintza	"Pasadas Las 4"	Sektore pribatua
Kultur ekintza	Mama Crea	Sektore pribatua
Kultur ekintza	La Nave Producciones Teatrales SL	Sektore pribatua
Kultur ekintza	El Bucle	Sektore pribatua
Kultur ekintza	Xxlespectáculos	Sektore pribatua
Kultur ekintza	Humo Kolektiboa	Sektore pribatua
Kultur ekintza	Circustanzia zirko garaikideko konpainia	Sektore pribatua
Kultur ekintza	La Nave Teapro	Sektore pribatua
Kultur ekintza	Olazar Gestión SLU	Sektore pribatua
Kultur ekintza	Pedro José Usarralde Lázaro - Pedro III ilusionista	Sektore pribatua
Kultur ekintza	R M Management Y Producción SLU	Sektore pribatua
Kultur ekintza	La Llave Maestra antzerkia	Sektore pribatua
Kultur ekintza	Tdiferencia, S. Coop.	Sektore pribatua
Kultur ekintza	Oberena dantza taldea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Nafarroako Bertsozale Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Euskaltzaleen topagunea	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Euskara kultur elkargoa	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Ojalá Kantautoreen Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Euskal Herriko Txistulari Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Nafarroako Jotaren Adiskideen Lizarrako Elkarte	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Hasten ventures	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Euskokultur	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Sonríe que no es poco	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Ruido de Fondo Kultur Elkarte (Roberto Valencia 620901365)	Hirugarren sektorea
Kultur ekintza	Lizarrako Flamenko Elkarte (Txus)	Hirugarren sektorea
Museoak	Nafarroako Museo	Sektore publikoa
Museoak	Karlismoaren Museo	Sektore publikoa
Museoak	Jorge Oteiza Fundazio-Museo	Hirugarren sektorea
Museoak	Gustavo de Maeztu Museo	Sektore publikoa
Museoak	Arte Modernoko Muñoz Sola Museo	Sektore publikoa

Museoak	Tuterako Museoa	Sektore publikoa
Museoak	Tulebrasko Monasterioaren Museoa	Hirugarren sektorea
Museoak	Julián Gayarre Museo-etxea	Hirugarren sektorea
Museoak	Zubietako Errota Ekomuseoa	Hirugarren sektorea
Museoak	Las Eretasko Museoa eta Aztarnategi Arkeologikoa (Berbintzana)	Sektore publikoa
Ondarea	Artzapezpikutza	
Ondarea	NUKFko udalak	Sektore publikoa
Ondarea	Ondare historikoaren zaharberritze enpresen Espainiako elkarte	Hirugarren sektorea
Ondarea	Construcciones Zubillaga	Sektore pribatua
Ondarea	Construcciones Aranguren	Sektore pribatua
Ondarea	Construcciones Leache	Sektore pribatua
Ondarea	Navark SL	Sektore pribatua
Ondarea	Olcairum	Sektore pribatua
Ondarea	Gabinete trama	Sektore pribatua
Ondarea	EIN Estudios e Informes de Navarra	Sektore pribatua
Ondarea	RUNA Servicios Arqueologicos e Históricos SL	Sektore pribatua
Ondarea	MURARIA - Kultur baliabideen kudeaketa	Sektore pribatua
Ondarea	Apz	Sektore pribatua
Ondarea	Arca, SL	Sektore pribatua
Ondarea	Artres, SL	Sektore pribatua
Ondarea	Artus restauracion, SL	Sektore pribatua
Ondarea	Cyrpa, SL	Sektore pribatua
Ondarea	Erpa, SL	Sektore pribatua
Ondarea	Sagarte, SL	Sektore pribatua
Kultur koordinatzaileak	Ablitas	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Altsasu	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Andosilla	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Antsoain	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Agoitz	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Aranguren	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Arbizu	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Arguedas	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Arroitz	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Artaxoa	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Aiegi	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Azagra	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Barañain	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Baztan	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Bera	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Beriain	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Berriobeiti	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Berriozar	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Buñuel	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Burlatako patronatua	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Cabanillas	Sektore publikoa

Kultur koordinatzaileak	Caparroso	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Cárcar	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Zarrakaztelu	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Cascante	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Kaseda	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Castejón	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Cintruénigo	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Zizur Txikia	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Corella	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Cortes	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Eguesibar	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Lizarra	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Esteribar	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Etxarri Aranatz	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Faltzes	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Fitero	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Funes	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Fustiñana	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Galar	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Uharte	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Irurtzun	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Lakuntza	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Larraga	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Leitza	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Lekunberri	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Lerin	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Lesaka	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Lodosa	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Los Arcos	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Irunberri	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Martzilla	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Mendabia	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Milagro	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Monteagudo	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Murchante	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Noaingo patronatua	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Olatzagutia	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Erriberri	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Oltza	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Azkoien	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Ribaforada	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Zaraitzu	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	San Adrián	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Zangoza	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Sartaguda	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Sesma	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Tafalla	Sektore publikoa

Kultur koordinatzaileak	Tuterako kultur etxea	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Ultzama	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Valtierra	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Viana	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Alesbes	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Atarrabia	Sektore publikoa
Kultur koordinatzaileak	Zizur Nagusia	Sektore publikoa